


KALEBEGIAK

DONOSTIA
HAMABI BEGIRADA, PELIKULA BAT

SAN SEBASTIÁN
DOCE MIRADAS, UNA PELÍCULA



DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA
DSS2016.EU

MORIARTI



64

DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIÁN
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL

WWW.KALEBEGIAK.EUS

KOLDO ALMANDOZ · ASIER ALTUNA · TELMO ESNAL · LUISO BERDEJO · DANIEL CALPARSORO · IÑAKI CAMACHO
BORJA COBEAGA · MARÍA ELORZA · MAIDER FERNÁNDEZ · ISABEL HERGUERA · IZIBENE OÑEDERRA
EKAIN IRIGOIEN · JULIO MEDEM · GRACIA QUEREJETA · IMANOL URIBE

PROIEKTUAREN ZUZENDARIAK / DIRECTORES DEL PROYECTO MICHEL GAZTAMBIDE · JORGE GIL MUNARRIZ EKOIZLE ERAGILEAK / PRODUCTORES EJECUTIVOS XABIER BERZOSA · DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
ETIKO EKOIZLE ORDEZKARIA / PRODUCTORA DELEGADA ETB ELENA GOZALO PRODUKZIO ZUZENDARIA / DIRECTOR DE PRODUCCIÓN MIKEL HUÉRCANOS PRODUKZIO KOORDINATZAILEA / COORDINADORA DE PRODUCCIÓN LORETO AGIRRE



rtve



Agintaritzako Iturria
Ayuntamiento de San Sebastián



Basque Government
Gobierno Vasco



Basque Government
Gobierno Vasco



Basque Government
Gobierno Vasco

donostiakultura.com



atera



AURKIBIDEA

KALEBEGIAK
PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

.....

KALEBEGIAK
SORTZAILEEN ARABERA

.....

3 BELAUNALDIAK
ZINEMAGILE OSPETSUAK
TARTEKO BELAUNALDIA
ZINEMAGILE HASIBERRIAK

AKTOREAK
(HAUTAKETA)

.....

TALDE TEKNIKOAK
(HAUTAKETA)

.....

SINOPSIAK



KALEBEGIAK

PROIEKTUAREN DESKRIBAPENA

KALEBEGIAK, «kale» eta «begiak» hitzen batura, 2016an Europako Kultur Hiriburua den Donostiaz egindako filmaren izenburua da. **15 zine-magileren eskutik**, 12 zatitan, **hiriko kaleetan barna eramango gaitu pelikulak**, Donostiako jendea ezagutaraziko digu, eta bereziki zinematografikoa den Donostiaren erretratua eskainiko.

KALEBEGIAK. 12 film labur. Pelikula bat. 12 ikuspegi zinematografiko. Eta hiri bat, espazio bat gai nagusi hartuta. Eta azken hamarkadetan **Donostian sortutako talentu zinematografikoa**, bidaiari ekiteko aitzakia gisa.

Askotariko ikuspuntuak biltzen dituen lan honetan, **dokumentalak, animazioa eta fikzioa** aurki daitezke, 15 zuzendarik kontatutako 12 istoriotan. Apropos bilatu dugu estilo-aniztasuna, eta aniztasun hori da, hain zuzen, proiektuaren baliorik preziatuena eta agerikoena.

Gure lurraldeko zuzendariak ez ezik, KALEBEGIAK filmak ikusleentzat horren ezagunak ez diren **diziplina zinematografikoetako figura garrantzitsu** batzuk ere bildu ditu (adibidez, muntaketa, soinu, argazki-zuzendaritza edo ekoizpenekoak). Izan ere, ospe handiko teknikarien talentua ere goratu eta aintzatetsi nahi izan du.

Filma, gainera, profesional ezagunen eta belaunaldi berrien arteko topagune da. Filmazioetan parte hartu duten kideen gutxienez % 50 **Larrotxene kultur etxeko zinema-tailerretako ikasleak** dira, han sortu baitzen film luzea egiteko ideia. Hasiera-hasieratik, profesionalen irakaspenak funtsezkoak izan dira proiektua aurrera eraman ahal izateko. Lanbideak eta sormenak belaunaldiz belaunaldi iraungo dutela bermatzeko espazioa izan da; etorkizuneko ekoizpenen balio zinematografikoa bermatzekoa.

KALEBEGIAK proiektuak film hutsa baino gehiago izan nahi du.

KALEBEGIAK film luzean, orainaldiak eta iraganak bat egin dute. Sormena trukatzeko eta aberasteko topagunea da. **Gehitzeko espazio bat.**



KALEBEGIAK

SORTZAILEEN ARABERA

KALEBEGIAK Larrotxene kultur etxean sortu zen. Donostiako Kultura Patronatuak kudeatzen duen zentro horretan, zinemari eta ikus-entzuzko sektoreari buruzko askotariko tailerrak antolatzen dituzte duela 27 urtetik hona.

Donostia 2016ko Europako Kultur Hiriburu izendatu zutenean piztu zitzaien ideia. Izendapenaren berri izan zutenean, kultur etxean irakasle diren Michel Gaztambide eta Jorge Gil Munarriz gidoilariak pentsatu zuten aukera bikaina izan zitekeela hura, ikasleek ekoizpen profesionalean lan eginez prestakuntza osatzeko. Gainera, lehen mailako profesionalekin egin zezaketen.

Izan ere, Donostia leku berezia da ikuspuntu zinematografikotik. Alde batetik, Donostia Zinemaldia munduko zinema-jaialdi sonatuenetako bat da. Bestetik, azken hamarkadetan, zinemak garrantzi handia hartu du hiriko eta lurraldeko adierazpen kulturalen artean. Hori guztia kontuan

hartuta, guztiz aproposa iruditu zitzaigun Hiriburutzari film luze honen proiektua aurkeztea, non hiru belaunalditako zinemagileek egingo zuten bat: 80ko eta 90eko hamarkadetakoei, film laburren Kimuak plataformatik sortutakoek, eta biharko egunekoek –herritarrek parte hartzeko antolatutako lehiaketa ireki batean hautatutakoak–.

Moriarti produkzio-etxeak eta Donostia 2016k proiektua martxan ostean, erraza izan zen lehen mailako zuzendariak parte hartzera animatzea. Batzuk ezagunak dira, bai hemen, bai atzerrian; beste batzuk, oraintxe hasi dira ospea hartzen. Guztiak ere buru-belarri murgildu ziren egitasmoan, eta erantzun ezin hobea izan zuen lehiaketak, 80 proiektu baino gehiago jaso baikenituen. Halako zutabe sendoei, bermatuta geneukan halako proiektu batek merezi duen kalitatea.

Ia beti gertatzen den bezala, ideia zoro bat izan zen abiapuntua. Baina profesionalen eskuzabaltasun eta entregagatik egin zuen aurrera, eta hasiberrien energia eta gaitasunagatik.

Guzti-guztiei, eskerrik asko, parte hartzeagatik. Haiek gabe, ez genuen bidaia hau egiterik izango.



3 BELAUNALDIAK



ZINEMAGILE OSPETSUAK

Gure projektuko zuzendari «beteranoak» Espainiako zinemaren lau izar handi dira: Imanol Uribe, Julio Medem, Gracia Querejeta eta Daniel Calparsoro.

Sozialki eta artistikoki oso gorabeheratsuak izan ziren 80ko eta 90eko hamarkadetan hasi ziren lanean, eta, geroztik, oso ibilbide esanguratsuak izan dituzte.

Haietako batzuek Donostian jarri zuten beren ibilbide artistikoko lehen harria; hiri hauxe izan zen beren aurreneko istorioen agertokia. Hala, modernotasunaren, arriskuaren eta konpromisoaren sinonimo bihurtu zuten Euskal Zinema Berria.

Hiru ezaugarri horiek zuzen-zuzenean garamatzate Donostiako sorkuntza zinematografikoaren sustatzaile ospetsuenetako bat izan zen Elías Querejetarengana. Bere alaba Graciaren parte-hartzeak aukera ematen digu, Graciaren beraren ibilbide artistikoa goresteko ez ezik, aitaren figura ahaztezinari omenaldia egitekoa ere.

Lau zinemagile horien presentziak ohore egiten dio proiektuari, eta ikusle guztiek aitortzeko moduko kalitate-labela ematen.



2. Imanol Uribe

3. Julio Medem

4. Daniel Calparsoro



TARTEKO BELAUNALDIA

Aurreko belaunaldiaren ondotik, eta film laburren banaketarako Kimuak euskal plataformatik abiatuta, horra non ditugun Asier Altuna, Telmo Esnal, Luiso Berdejo, Koldo Almandoz, Isabel Herguera, Izibene Oñederra eta Borja Cobeaga. Euskal zinemaren errelebo naturala osatzen dute.

Heterogeneoak direla esan daiteke, arlo ezberdinak lantzen baitituzte (animazioa, dokumentala eta fikzioa), eta askotariko estiloak eta lengoaiak. Etorkizuneko zinemagileak dira, baina egungoak ere bai. Gehienek munduko jaialdi zorrotzenetan parte hartu dute, eta batzuen izen-abizenak funtsezkoak bihurtu dira zinema komertzialenaren panoraman.





1. Asier Altuna
.....
2. Koldo Almandoz
.....
3. Luis Berdejo
.....
4. Isabel Herguera
Izibene Oñederra
.....
5. Borja Cobeaga
.....
6. Telmo Esnal

ZINEMAGILE HASIBERRIAK

KALEBEGIAK proiektuaren helburua teknikarien eta zuzendarien belau-
naldi berriari lan egiteko aukera bat ematea izan da beti.

Zinema profesionalaren munduan lehen pausoa ematea ez da erraza izaten;
zuzendarien kasuan, batez ere. Horregatik, **KALEBEGIAK** proiektuak etor-
kizuneko zinemagileen aurkezpen-gutuna izan nahi zuen.

Lehiaketa publikora aurkeztutako 80tik gora proiektuen artetik, honako
egile hauenak aukeratu genituen: María Elorza eta Maider Fernández,
Ekain Irigoien, eta Inko Martín (gidoilaria) eta Iñaki Camacho (zuzenda-
ria).

Erruz itzuli digute haiengan jarri genuen konfiantza, kalitate-maila izuga-
rriko hiru film laburren bitartez. Etorkizuna gutxienez oraina bezain ona
izango dute, zalantzarik gabe.



1. María Elorza
Maider Fernández

2. Ekain Irigoien

3. Iñaki Camacho





AKTOREAK (HAUTAKETA)

LAN AIPAGARRIENAK

El hombre de las mil caras (2016)

Lo imposible (2012)

Celda 211 (2009)

Azuloscurocasinegro (2006)

Frío sol de invierno (2004)

Marta Etura



LAN AIPAGARRIENAK

Gernika (2016)

Pikadero (2015)

Izarren argia (2010)

Un poco de chocolate (2008)

Los cronocrímenes (2007)

Oviedo Express (2007)

Barbara Goenaga



LAN AIPAGARRIENAK

¿Estás ahí? (2011)

Una hora más en Canarias (2010)

Las trece rosas (2007)

Aída (Tv)

Anclados (Tv)

Miren Ibarguren



LAN AIPAGARRIENAK

Amama (2015)

Baztan (2012)

Bi anai (2011)

La buena nueva (2008)

Silencio roto (2001)

Vacas (1992)

Kandido Uranga



LAN AIPAGARRIENAK

Julieta (2016)

La herida (2013)

Amour (2012)

Aupa Etxebeste (2005)

El día de la bestia (1995)

Ander eta Yul (1988)

Ramon Agirre



LAN AIPAGARRIENAK

Amama (2015)

Loreak (2014)

Negociador (2014)

Urteberri on, amona! (2011)

Nagore Aranburu



LAN AIPAGARRIENAK
El secreto de Puente Viejo (Tv)
Goenkale (Tv)
Doctor Mateo (Tv)

Xabier Perurena





TALDE TEKNIKO (HAUTAKETA)



Flavio Labiano

ARGAZKI ZUZENDARITZA

.....

Caza al asesino (2015)

Exodus: dioses y reyes (2014)

Indiana Jones y el reino de la calavera de cristal (2008)

Perdita Durango (1997)

El día de la bestia (1995)



Kalo Berridi

ARGAZKI ZUZENDARITZA

.....

Ocho apellidos vascos (2014)

Camarón (2005)

Plenilunio (1999)

Airbag (1997)

La ardilla roja (1993)

Josune Lasa

JANTZIAK

.....

Izarren argia (2010)

La buena nueva (2008)

Backwoods, bosque de sombras (2006)

Secretos del corazón (1997)

La madre muerta (1993)



Raúl López

MUNTAIA

.....

Lasa y Zabala (2014)

Loreak (2014)

Urteberri on, amona! (2011)

Nagore (2010)

80 egunean (2010)

Lucio (2007)

Satur Idarreta

ZUZENDARITZA ARTISTIKOA

.....

Tenemos que hablar (2016)

Primos (2011)

Los amantes del Círculo Polar (1998)

A ciegas (1997)

La madre muerta (1993)

Aitor Mantxola

ARGAZKI ZUZENDARITZA

.....

Lasa eta Zabala (2014)

Bypass (2012)

Bon appetit (2010)

Lisboa (1999)

Alas de mariposa (1991)



Gorka Gómez Andreu

ARGAZKI ZUZENDARITZA

.....

The night watchman. La mina (2016)

Moirra (2015)

Chaika (2012)

Ori (2009)

Javi P3z

MUSIKA

.....

Urteberri on, amona! (2011)

Cosmos (2007)

Aupa Etxebeste (2005)



Iñaki Díez

SOINUA

.....

Loreak (2014)

Caníbal (2013)

Yo, también (2009)

Te doy mis ojos (2003)





Javi Agirre

ARGAZKI ZUZENDARITZA

.....

Acantilado (2016)
Amama (2015)
Loreak (2014)
80 egunean (2010)
Aupa Etxebeste! (2005)



Karmele Soler

MAKILLAJEA

.....

Exodus: Dioses y reyes
(2014)
Combustion (2013)
La piel que habito (2011)
Hable con ella (2002)

Pascal Gaigne

MUSIKA

.....

Loreak (2014)
Lasa y Zabala (2014)
Siete mesas de billar francés (2007)
El sol del membrillo (1992)



Angel Illarramendi

MUSIKA

.....

Acantilado (2016)
Los Borgia (2006)
Héctor (2004)
El hijo de la novia (2001)
Yoyes (2000)



SINOPSIAK

Argiaren neska

.....
Egun batean, jendetzaren artean ikusi zintugun.
Gaua zen. Gero, desagertu egin zinen. Orain,
zure bila gabiltza. Gauez. Munduak dir-dir egi-
ten duenean.



Balea erreala

Donostia, 1902. Maria Kristina erreginari itsasoan traineruan ibiltzea gustatzen zaio. Goiz batean, patroiak esan dio balea bat ikusi dutela, kostaldetik gertu. Erreginak trainerura igo nahi du, ez baitu inoiz balearik ikusi.

Alfontso XII.aren alarguna popako butakan eseriko da, aurrean zortzi arraunlari, arpoilari bat eta bere soinekoari begira-begira dagoen ume bat dituela. Urpean, kantuan ari da balea.



Bidexka

.....
Anbulantzia-gidari batek, errore batengatik lanpostua galtzeko zorian egon ondoren, bigarren aukera bat du. Oraingoan, garaiz eraman beharra dauka hozkailua.



Hotzaren Etxea

Donostia. 2016. urtea. Omar egunero joaten da Hotzaren Etxea izenez ezagutzen den udal-aterpetxera. Han, beste hogeita hamar bat erabiltzaileekin partekatzen du lau pareten arteko lekutxoa, gizarte-eskubiderik oinarrizko eta funtsezkoenak ere ez dituzten pertsonekin.



Iraila

Iraila. Kontxako badia. Estropadak. Dudarik gabe, donostiarrentzat urteko egunik seinalatuenetako bat.



Kresala

.....
Denborale bortitza iritsi da hirira. Agintariek portutik ateratzeko debekua ezarri diete itsasontziei, baina arrantzale zahar batek itsasoratzea erabaki du.



Kutxa Beltza

.....
Etxe-aldaketetan ibiltzen den kamioia Igeldoko itsasargira doa. Txakur
arraroaren jabea den emakumea bizi da bertan. Itsasargiaren barneko giro
ilunean, haluzinazio arraroenen protagonista bihurtuko da.



Los Angeles Observer

Mexikoko San Sebastián herriko emigrante gazte bat da Dante, eta Los Angelesen bizi da. Gau batean, Donostiatik bertara joandako Jose Mari emigrante zaharraren etxera sartuko da, lapurreta egitera.



Narcisso

.....
Gure hiriarekiko «maitasunari» buruzko istorioa.



Puntu Itsua

.....
Ohiko egun bat Haizearen bizitzan. Betiko agenda, betiko ohiturak, betiko jendea kalean. Baina badira bere begiek ikusten ez dituzten xehetasun batzuk: puntu itsuan gertatzen direnak, hain zuzen ere.



Testigantza

.....
Terrorismoaren eta indarkeriaren biktima askoren ustez, funtsezkoa da haien testigantza belaunaldi gazteenekin partekatzea, Euskadiko gizar-tean ez daitezen mina eta basakeria berriro hedatu. Kasu honetan, Bárbara Dührkopen testigantza entzungo dugu.



Txintxorro

Donostian, uda betean, Mikelek eta Jonek, 13 urtekoak biak, ontzi bat eraiki nahian dabilta, Ainhoari desagertu zaion Beltza txakurraren etxetxoarekin. Piraten abordatzean erabili nahi dute ontzia, eta, agian, elkarrekin etxetik ihes egiteko. Hirukoaren planak primeran doaz, Gorka scooter gainean agertzen den arte. Orduan, Ainhoak erabaki bat hartu beharko du: lagunekin geratu edota motordun mutilarekin alde egiteko tentazioan erori.

